

ANGER "SEDUKZIOAZ" (MH62)

Badira talde asko ahalegintzen direnak etengabe hedabideak eta entzuleak seduzitzen kontzertu asko eginez, urtero diskoak kaleratzen eta entzule potentzialek gustuko izango dituzten hitzak idazten.

Arrasateko Anger taldeak, berriz, lan egiteko beste modu bat dauka. Taldekideek pasiotzat dute musika eta taldea, baina nahiago dute horretarako denbora eta motibazioa dutenean gogor ekitea, nahiz eta tartean denbora dexente pasa eta inork taldea "ahazteko" arriskua izan; berdin die horrek. Are gehiago, hitzak idazterako orduan, pentsatzen dutenarekin kontsekuenteak dira eta ez zaie axola bidaikideak galtzea. Hala, aurreko "Biluztu" diskoan itzelezko autokritika egin zieten euren buruei eta orohar Euskal Herriko gazteriari, beste inork egin ez duen moduan.


Lan berri honetan ere gizakion papera, jarrera eta kritikotasun eza dute jomuga; zein errez engainatzen gaituzten guk artaldean eutsi eta gainera ederto gaudela pentsa dezagun. "Pentsatzen duen herria ez da inoiz hilko", gehituko nuke neuk.

Baina ezin ahaztu, hausnarketa eta jarrera hori guztia musikaz jantzita datorrela. Arrasateko laukoteak pauso bat haratago eman du eta lan bikaina kaleratu. Bikaina, zergatik? Bada, urteak ez direlako alperrik pasa eta horiek ondu egin dutelako taldea: Iban eta Ekainen erritmo oinarri apurtezina; Beñat guitar-killer ikaragarria; eta, taldeari glam ukitu emateaz gain, estilo berezia eta ahots errejistro aberatsa daukan Arkaitz abeslari geldiezina.

Bestalde, iragan metaleroa ez dute erabat alboratu, baina askoz soinu eta estilo gehiagotara zabaldu dira, kantuek borobiltzerako orduan: horra hor, post-hardcoreak daukan tenpo, giro eta iluntasun ezaugarriak barneratu izana; rockarenganako gero eta gehiago erakusten duten "simpatia"; metal erritmoen irmotasuna; rapeatuak; hardcorearen urgentzia; eta stonerraren sakontasuna, besteak beste. Gainera, taldearen marka den aurreiritzi ezarekin, badira baita pop-rock edo sanba pasarteak ere.

Esandako moduan, Anger taldeak tamaina aurkitu dio konposizioari eta emaitzari; eta nahiz eta seguruenik diskoetxe askorekin lan egiteko aukera izan, nahiago dute Musikherriarekin lan egin eta beste behin Copyleft-en aldeko hautua egin, euren jarrerarekin bateragarriena delako.

Iker Barandiaran.



Kaleratze data: 2009ko abendua

Erreferentzia: MH062

Estiloa: Hardcore, Pop, Metal

Salneurria: 6€

Iraupena: 39:11

Abesti zerrenda:

- 01 ofizioa ala afizioa?
- 02 farandularen xarma zuhurra
- 03 ez gara geure baitakoak
- 04 kosmetikoen lobbya
- 05 iragankortasunaren inperioa
- 06 gabon, eta zorte on
- 07 ego-aldea
- 08 beleen zeruari su
- 09 goebbels tv
- 10 soma

Hizkuntza: Euskara

Grabazioa:

- Estudioa: Mamut – Portugal Txiki Records (Oiartzun) eta Shot! (Arrasate)
- Grabaketa: Josema Linazasoro
- Masterizazioa: Iñaki Bengoa
- Noiz: 2009ko urria eta azaroa bitartean

Taldekideak:

- Iban: Bateria
- Ekain: Baxua
- Beñat: Kitarra
- Arkaitz: Ahotsa

Diseinua: Unai Bergara

(www.mundurat.net/bergdiseinuak)

Harremanetarako:

www.angerweb.net
www.myspace.com/angersarean
anger@angerweb.net
[0034] 607 782 401 (Haritz)

